



## **7/2014 Irizpena**

**Ondoko egitasmoaren gainean: Nafarroako Gobernuaren erabakia, Elizondoko “FP Elizondo LH” (behin-behineko izena) Bigarren Hezkuntzako Institutua sortzen duena, Lekarozko eta Elizondoko “Lekaroz-Elizondo” Bigarren Hezkuntzako Institutuko egoitzan ematen diren Lanbide Heziketako irakaskuntzak bereizteagatik.**

*Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkurak 2014ko ekainaren 23an  
onetsia*

**Pedro González Felipe jn.**

Kontseiluburua

**Ignacio Iriarte Aristu jn.**

Idazkaria

**Santiago Álvarez Folgueras jn.**

Guraso elkarteen federazioetako ordezkaria (HERRIKOA)

**José Luis Asín Buñuel jn.**

Hezkuntza Administrazioko ordezkaria

**M<sup>a</sup> José Anaut Couso and.**

Sindikatuaren ordezkaria

**Pedro María Baile Torrea jn.**

Guraso elkarteen federazioetako ordezkaria (CONCAPA)

**Fernando Barainca Lagos jn.**

Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FSIE-SEPNA)

**Iñaki Berasategi Zurutuza jn.**

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (LAB)

**Aurora Bernal Martínez de Soria and.**

Unibertsitateetako ordezkaria (Nafarroako Unibertsitatea)

**Camino Bueno Zamarbide and.**

Ikastetxe publikoetako zuzendarien ordezkaria

**Jesús M<sup>a</sup> Ezponda Iradier jn.**

Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria

**José Miguel Gastón Aguas jn.**

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (STEE-EILAS)

**Sergio Gómez Salvador jn.**

Guraso elkarteen federazioetako ordezkaria

**Carmen M<sup>a</sup> González García and.**

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria

**David Herreros Sota jn.**

Hezkuntza Administrazioko ordezkaria

**Iñigo Huarte Huarte jn.**

Hezkuntza Administrazioko ordezkaria

**José Jorge Lanchas Rivero jn.**

Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria (ANEG-

7/2014 Irizpena

2014ko ekainaren 23ko Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkuran parte hartu zuten ondoan aipatu ditugun lagunek. Bertan irizpena eman zen, aldeko 18 botorekin eta abstentzio 1ekin, ondoko egitasmoaren gainean: Nafarroako Gobernuaren erabakia, Elizondoko "FP Elizondo LH" (behin-behineko izena) Bigarren Hezkuntzako Institutua sortzen duena, Lekarozko eta Elizondoko "Lekaroz-Elizondo" Bigarren Hezkuntzako Institutuko egoitzan ematen diren Lanbide Heziketako irakaskuntzak bereizteagatik.

#### 1 - ARAU AURREKARIAK.

Lortu nahi denez Berariazko Lanbide Heziketako ikastetxeek lan mundura duten orientazioa indartzea, kudeaketa autonomia eta malgua erraztuz, lan sektorearen eskakizun eta aldaketei erantzuteko gauza izateko, Hezkuntza Departamentuak erabaki du Berariazko Lanbide Heziketako irakaskuntzak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntzetatik bereiztea.

Egoera horretan da "Lekaroz-Elizondo" Bigarren Hezkuntzako Institutua, Lekarozko Batxilergoko Institutuak eta Elizondoko Lanbide Heziketako Institutuak bat egin ondoren sortu zena. Hartara, bidezkoa da institutu horretatik Berariazko Lanbide Heziketako irakaskuntzak bereiztea, Hezkuntza Sistemaren helburuak hobeki lortzeko.

Kasu honetan, Elizondon ematen diren Lanbide Heziketako irakaskuntzei bakarrik dagokie

FERE)

**Lourdes Larunbe Arretxe and.**

Ikastetxeen administrazioko eta zerbitzuetako langileen ordezkaria

**M<sup>a</sup> Paz Murillo Urcelay and.**

Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FETE-UGT)

**Amilcar Quinatoa Quinatoa jn.**

Ikastetxe publikoetako ikasleen ordezkaria

**Pedro Rascón Macías jn.**

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria

bereizketa hau, eta ez da barnean sartzen “Natur ingurunean gorputz eta kirol jarduerak gidatzea” izeneko erdiko mailako zikloa, Lekarozen ematen dena eta “Lekaroz” Bigarren Hezkuntzako Institutuko hezkuntza-eskaintzaren barruan izaten segituko duena.

Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako Institutuen Erregelamendu Organikoa onetsi zuen otsailaren 10eko 25/1997 Foru Dekretuaren 2. artikuluan<sup>1</sup> ezartzen da Bigarren Hezkuntzako institutuak sortu edo kentzea Nafarroako Gobernuari dagokiola, Hezkuntza Departamentuak hala proposaturik.

## 2. GOBERNUAREN ERABAKIRAKO EGITASMOAREN DESKRIBAPENA

Eskola Kontseiluaren irizpidepeko Gobernu erabakiaren zirriborroak bederatz

---

<sup>1</sup> 25/1997 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Bigarren Hezkuntzako Institutuen Erregelamendu Organikoa onesten duena (NAO, 1997ko martxoaren 14koa).

### 2. artikulua. *Bigarren Hezkuntzako institutuak sortu eta kentzea.*

1. Bigarren Hezkuntzako institutuak sortu edo kentzea Nafarroako Gobernuari dagokio, Foru Dekretuaren bitartez, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak hala proposaturik. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak baimena eman dezake Foru Dekretu honetan aipatzen diren ikastetxeetan unitateak sortu edo kentzeko.
2. Nafarroako Gobernuak Bigarren Hezkuntzako institutuak sortu, kendu, integratu edo zatibitzeko erabakiak hartu ahal izateko, beharrezkoa izanzen da Hezkuntza Batzorde Nagusiak edo Nafarroako Eskola Kontseiluak aginduzko txostena aurkeztea eta horren berri irakasleen ordezkari sindikalei ematea.

puntu eta eranskin bat ditu.

Gobernuaren erabakirako egitasmoko puntuen edukia hauxe da:

2014ko uztailaren 1eko ondorioekin, Bigarren Hezkuntzako institutu bat sortzea “FP Elizondo LH” berariazko izenarekin eta 3101466 ikastetxe kodearekin. Hezkuntza eskaintza eta hizkuntza eredua (A eta D) zehazten dira.

Zehazten da zer ezaugarri izanen dituen gaur egungo “Lekaroz-Elizondo” institutuak. Aurrerantzean 31008271 kodea izanen du eta berariaz “Lekaroz izena hartuko du Lekarozen kokatutako institutuak, “FP Elizondo LH” BHI berria bereizi ondoren.

Bereizketaren eguna 2014ko uztailaren 1a izanen da eta gaur egungo alboko zuzendaritza taldea izendatzen da “FP Elizondo LH” BHI berrirako, 2015eko uztailaren 1a arte.

2014ko uztailaren 1etik aurrera, bereizketaren ondorioz sortuko den “Lekaroz” Bigarren Hezkuntzako Institutuko zuzendaritza talde berriak bere osaera indarreko legeek ezartzen duten horretara egokituko du, ikastetxearen ezaugarriak kontuan harturik.

Bereizketak ukitutako langileak “FP Elizondo LH” BHIri atxikiko zaizkio; eranskinean agertzen da langile horien eta postuen zerrenda. Puntu honen 2. azpiatalean esaten da Ekonomiako espezialitateko irakaslerik ez dagoen bitartean, horri dagozkion orduak Enpresen Administrazioako espezialitatean dauden eta behin betiko destinoa duten irakasleetako bati egokitu zaizkiola.

Nafarroako Foru Komunitatearen titulartasuneko ikastetxeen sarearen barnean geldituko da “FP Elizondo LH” BHI, “Baztan” izeneko 2. barrutian.

Hezkuntzako kontseilariari ahalmena ematen zaio Gobernuaren erabaki honetan ezarritakoa garatzeko eta gauzatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Nafarroako Gobernuaren erabakia igortzea.

Erabakia NAO n argitaratzea eta noiz hartuko duen indarra.

Eranskinak jasotzen du “FP Elizondo LH” Bigarren Hezkuntzako Institutu berriari atxikiriko langileen zerrenda, irakasle direnak eta ez direnak.

### **3.- GOBERNUAREN ERABAKIRAKO EGITASMOAREN TESTUARI BURUZKO BESTELAKO GAIAK**

Egitasmoari gehitu zaizkio Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzuaren proposamen txostena eta Ikuskapenaren, Lanbide Heziketaren eta Giza Baliabideen zerbitzuen txostenak, proposamena burutu ahal izateko bakoitzaren eskumeneko esparruan zer jarduketa behar diren azaltzen dutenak. Halaber, dagokion memoria ekonomikoa gehitu zaio, ekitaldi honetan eta hurrengoetan neurriak izanen duen zenbatetsitako kostua zehazten duena.

#### 4.- IRADOKIZUNAK ETA OHARRAK

Ondoko egitasmoaren gainean: Nafarroako Gobernuaren erabakia, Elizondoko "FP Elizondo LH" (behin-behineko izena) Bigarren Hezkuntzako Institutua sortzen duena, Lekarozko eta Elizondoko "Lekaroz-Elizondo" Bigarren Hezkuntzako Institutuko egoitzan ematen diren Lanbide Heziketako irakaskuntzak bereizteagatik.

Horrenbestez, hura tramitatzearen aldeko irizpena eman da.

Nolanahi ere, onetsitako zuzenketetan aipatzen den bezala, ondoko aldaketak edo oharrak egitea iradokitzen du:

- Gaztelaniazko testuan, 4. orrialdeko 11. lerroan, 11. lerroaren ondoren gehitzea "*Formación Profesional Básica*":
  - a. *FPB Servicios Administrativos*.
  - b. *FPB Fabricación y Montaje*."
- Gaztelaniazko testuan, 5. orrialdeko 10. lerroan "*1 de julio de 2015*" dataren ordez "*30 de junio de 2015*" paratzea.
- Gaztelaniazko testuan, 5. orrialdeko 11. eta 12. lerroetan "*fecha en que termina su mandato como equipo directivo adjunto*" esaldia kentzea.
- Gaztelaniazko testuan, 1. orrialdeko 10. lerroan, 3. orrialdeko 26. lerroan, 5. orrialdeko 9. eta 24. lerroetan, 6. orrialdeko 6. eta 8. lerroetan eta 7. orrialdeko 11. lerroan "*Elizondo*" hitzaren ordez "*FP Elizondo LH*" paratzea.
- Gaztelaniazko testuan, 4. orrialdeko 8., 9. eta 10. lerroetan testutik kentzea unitateen eta ikaspostuen erreferentzia zehatzak.

Iruñean, 2014ko ekainaren 24an


O. E.

Kontseiluburua

Pedro González Felipe

Idazkaria

Ignacio Iriarte Aristu

A handwritten signature in black ink, consisting of a large, stylized letter 'P' with a vertical line through it and a horizontal line at the bottom, followed by a few additional strokes.

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZAKO KONTSEILARI JN.